

JAINKOAK GUZTIONTZAT EGINA



<http://zeinu.bizkeliza.org>

JAINKOAK GUZTIONTZAT EGINA

¡CUIDEMOS LA CASA COMÚN!

“Sinistedun izan ala ez, bat gatoz lurra guztiontzako herentzia dala eta bere frutuak danon mesederako izan behar dabela esatean. (...) Alkartuko gaituan bihotz-barritzea, kontsumismoaren esklabotasunetik askatzea... behar dogulako, aparteko eskaria egiten deusut: belaunaldi barrientzako landu eta babestu egin behar dogun doe lez jaso dogun kreazinoa zaindu daigula! Guztion etxea zaindu daigula”

(Frantzisko Aita Santuaren mezua 2016ko otsailean)

Aurton, Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinuaren izenburuak, Frantzisko Aita Santuak “Laudato Si” (LS) entziklikan egiten dauan deia jasoten dau: Jaungoikoak, danontzat, geure esku itzi dauan *GUZTION ETXEA ZAINDU*. Geure ardura da, ondorengo belaunaldiei begira, dalako etxe hori zaintzea.

*Izadiaren begirune bako ustiapena dala-eta, [gizon-etakumeek] suntsitu egin daikie eta, aldi berean, hondatze horren biktima bihurtu daitezke. 1971n idatzitako Octogesima Adveniens entziklikatik hartutako berbak dira. FAO erakundeak (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazino Batuetako Erakundea) be, hondamendi ekologikoaren aukeraren inguruan hitz egiten eban sasoi horretan, *gizadiaren jokaeran erabateko aldaketa preminazkoa eta ezinbestekoa zala nabarmenduz.**



2016an, haxe irakurri daikegu LS entziklikaren 139. zenbakian: *Ez dagoz bereizitako krisi bi, ingurumenarena eta gizartearena; gizarte-ingurumen krisi bakar eta konplexua dago. Horregaitik, «ingurumenaz» hitz egiten danean, batez be hartu-emon bat adierazoten da, izadiaren eta bertan bizi dan gizartearen artean dagoana. Horren arabera, ezin dogu izadia gugandik bananduta dagoan zerbait lez, gure bizitzarako eremu huts lez ulertu. Bere baitan gagoz.*

Gizartearen jardutearen, bere ekonomiaren, bere jokamoldearen, errealidadea ulertzeko eraren azterketa egin beharra dago, leku bat zergaitik kutsatzen dan argitzeko.

Konponbideek osoko hurbilketa eskatzen dabe, pobretasunari aurre egiteko, baztertuei duintasuna itzultzeko eta, aldi berean, izadia zaintzeko. Ezin da gizarte bizi antolatu izadiagaz dogun erantzukizuna alde batera itzita.

Gizon-emakumearen doeak alkarregaz lotuta dagozan lez eta, ondorioz, baten ahultzeak gainerako guztiak arriskuan jarten dituan lez, sistema ekologikoa be gizarte bizikidetasun sanoa zein izadiagazko hartu-emon ona barne hartzen dituan egitasmoan oinarritzen da.

ZER GERTATZEN JAKO GURE ETXEARI? DATU BATZUK

- Bizi dogun aroan, desbardintasuna nabarmentzen da. Munduko etxerik aberatsenen %10aren esku dago munduko aktiboen %85a, behartsuenen %50 behartsuenak etxeen osoko aberastasunaren %1a bakarrik daualarik.
- 2.600 milioik ez daukie saneamendu-zerbitzurik. 900 milioik ez dauka edateko ur garbi eta segururik.
- Ozeanoak %30 azidotu dira azken berrehun urteetan, airean CO2 gehiago dagoalako.
- 1970etik hona, 3.000 espezie ezagunen populazioa %50 murriztu da.
- Berotegi-efektuak eragindako gasen isurketak azken glaziazinoko berotzea baino 10 bider handiagoa dakar.
- Aldaketa klimatikoek, ingurumenaren hondatzeak, basamortutzeak migratzera behartzen dau lagun asko eta asko, horrek esan gura dauan guztiagaz.
- Gure arrasto ekologikoak, hau da, baliabideak sortzeko eta sortutako hondakinak asimilatzeko lur edo ur ekologikoki emonkorraren eremua irudikatzen dauanak, eten barik hazten dihardu. 1,5 Lur sortzeko gaitasuna behar dogu urtero behar doguzan zerbitzu ekologikoak eskura izateko.

GURE GARAPEN EREDUA EZ DA IRAUNKORRA

Pentsatu daigun atsekabetuta garrasi egiten ari dan gure “planeta urdin ederrean”. Lurraren mugen errebelamendu isila bizi dogu. Gure biziraupenerako eredu modernoa, izadiaren aurkako gerran baino ez da bideragarria.

LS 2an irakurri daikegu: *Arreba honek garrasika dihardu Jainkoak bertan jarri izan dituan ondasunen arduragabeko eta gehiegizko erabileraren eraginez egiten deusagun kalteagaitik. Jabe bakarrak ginala, menperatzeko eta ebasteko baimen mugagabea genduala sinistuta hazi gara. Pekatuak zauritutako giza bihotzaren indarkeria lurzoruan, uretan, airean, bizidunengan antzematen dogun gaixotasunezko zantzueta bee agertzen da.*

Ingurumenaren hondatzearen eragin nagusia planetako ahulenek jasaten dabe. Benetako «zor ekologikoa» dago, batez be Iparraldearen eta Hegoaldearen artean, merkataritza arloko desorekei eta historian zehar herrialde batzuen aldetik egon izan dan baliabide naturalen neurri bako erabilerari lotuta (LS 51). Guzti horrek gure arreba lurraren aienea eragiten dau, oihuka norabidez aldatzea eskatzen deuskuen munduko baztertuen aienagaz bat egiten dauana. Sekula ez deusagu azken gizaldi bietan besteko tratu txarrik emon eta minik eragin guztion etxeari. Baina Jaungoiko Aitaren tresna izatera deituak gara, gure planeta, Berak sortzean amestu ebana eta bere bake, edertasun eta osotasunezko egitasmoaren isla izan daiten (LS 53).

KREAZINOA ESKERTU ETA DEFENDATU

Hasiera liburuan, jarduera sortzailearen lehenengo kontakizunean, Jaungoikoaren egitasmoaren barruan dago gizadia sortzea be. Azkenean, zera esaten da: *Eta egin eban guztia ona zala ikusi eban Jaungoikoak* (Has 1, 31). Gizon eta emakume bakoetara maitasunez, Jaungoikoaren antz eta irudiko sortua dala erakusten deusku Bibliak. Gizon-emakumearen bizitza, alkarren artean estu lotuta dagozan hiru hartu-emonetan oinarritzen da: hartu-emona Jaungoikoagaz, lagun hurkoagaz eta “landu eta zaindu” daigun (Has 2, 15) emon izan jakun lurragaz.

Eta «krezinoia» esatea, izadia esatea bano gehiago da, izaki bakoetara balio eta esangura jakin bat emoten jakon Jaungoikoaren maitasunaren egitasmoagaz zerikusia daualako. Krezinoia, maitasunaren mailakoa da. Jaungoikoaren maitasuna da sortutako guztiaren funtsezko eragingarria: *Izaki*

guztiak maite dozuz eta ez dozu zeuk egindako ezer gitxiesten, zerbaiti gorroto izan bazeuntso ez zeunkean-eta egingo (Jkd 11, 24). Beste era batera esanda, Jaungoikoak liburu ederra idatzi dau, eta unibersoan dagozan izaki ugariak dira bere letrak (LS 85).

GUZION ETXEA ZAINDU – BIHURTZE EKOLOGIKOA

Krisi ekologikoa barruko aldaketa sakonerako deia da... bihurtze ekologikorako deia, gure inguruagazko hartu-emonetan Jesukristogaz bat egitearen ondorio guztiak agertzerantz emotea eskatzen dauan bihurtzea. Jaungoikoaren egintzaren babesle izateko bokazinoa bizitzea, onbidezko bizitzaren oinarritzko atala da; ez da aukerako zerbait edo kristinau esperientziaren bigarren mailako alderdia (LS 217).



Bihurtze ekologiko horrek, kreazinoagaz adiskidetzea adierazo behar dau: *Adiskidetze hau gauzatzeko, geure bizitzak aztertu egin behar doguz eta gure ekintzakaz eta esku-hartzeko gaitasunik ezagaz Jaungoikoaren kreazinoari irain egiten deusagula autortu. Aldatzearen, bihotz-barritzearen esperientzia egin behar dogu (LS 218). Era berean, giza familia bakarra garaneko kontzientzia sendotu egin behar dogu (LS 52).*

HAUSNARKETA BAKARKA ETA TALDEAN

- Jaubetzen ete naz izadiaren zainketan dodan erantzukizunaz? Eta nire inguruan, senideak, adiskideak, auzokideak, herritarrak, jaubetzen ete dira? Eleiza lez, ze garrantzi emoten deusagu zainketa horri? Gertaerak, zeinuak, ekintza zehatzak gogoratuko dodaz.
- “*Gure arreba lurraren aieneak, oihuka norabidez aldatzea eskatzen deuskuen munduko baztertuen aienagaz bat egiten dau*”, dinosku Frantzisko Aita Santuak. Bat nator? Zelan azalduko neuskio beste norbaiti?
- Sentitzen ete dot “*bihurtze ekologiko orokorrerako*” deia? Zer eskatzen deust horrek niri neuri eta zer eskatzen deutso gizarteari eta Eleizeari? Zer aldatu beharko geunke? Zer sustatu?
- Zelan lagundu, gure bizigiroan “*guztion etxearen zainketaren*” aldeko ardura, giza familia lez bizitzeko nahia handiagoa izan daiten? Zer egin?

ETA PROPOSAMENAGAZ BAT EGIN: EgunEKOA?

AZKEN OTOITZA

Maitasunaren Jaungoikoa;
erakutsi eiguzu munduan
jagokun lekua,
lur honetako izaki guzti-guztiei
deutsezun maitasunaren zabaltzaile
izan gaitezan.

ELEIZBARRUTIKO ZEINUA - 2016

MAIATZAK 6 DE MAYO. BILBO

ESKOLA-EGITARUA

9:30etatik 11:30etara, TAILERRAK: jolas ekologikoak eta ingurumenean esku-hartzekoak, uriko jolasa, bideo-foruma, gymkahna, tailerrak.

11:45etan ESKOLA-IBILTALDIA, Unamuno plazatik Begoñako Basilikaraino.

12:00etan, AMAIERAKO EKITALDIA – Begoñako Basilika.

EKITALDI OROKORRA

BILKURA ETA ZEINU PUBLIKOA: 19:30etan Albia lorategietan.

OTOITZALDIA, ondoren, Abandoko S. Bizente eleizan.).